



aditzoina  
+ *arazi*  

---

aditz arazlea



*etor* + *arazi* = *etorrarazi*

*ikas* + *arazi* = *ikasarazi*

- Aditz arazleak sortzeko, *arazi* aldaera baino ez da erabili behar; salpuespen bakarra *adierazi*.
- Aditzoinari lotu behar zaio beti *arazi*.<sup>1</sup>

\**etorriarazi*  
 \**etor arazi*  
 \**etorri arazi*  
 \**etorrerazi*  
 \**etor erazi*

(1)

— partizipioa = *etorri, ikasi*; aditzoina = *etor, ikas*

— Aditz eratorrietan (*eder* › *edertu*; *gizon* › *gizondu*) bi bide daude aditzoina sortzeko: -du/-tu bukaera kentzea edo bukaera horri eustea (*eder daiteke/edertu daiteke*); hiztegietan, ordea, lehenengo bidetik sortuak dira aditz arazle guztiak, hau da, bukaera kenduta: *ederrarazi, gizonarazi* [\**edertuarazi, gizonduarazi*].

## Kontuan hartu beharrekoak formari dagokionez:

Salbuespenak (*Hiztegi Batuan* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegian* jasoak):

- *ulertarazi* (partizipioa: *ulertu*; aditzoina: *uler*); \**ulerrarazi*
- *agintarazi* (partizipioa: *agindu*; aditzoina: *agin*); \**aginarazi*

Okerrak dira, beraz, honako hauek:

- \**agertarazi*<sup>1</sup>
- \**ahaztarazi*
- \**erakustarazi*
- \**ezkontarazi*
- \**hartarazi*
- \**irakurtarazi*
- \**ikastarazi*
- \**idaztarazi*
- \**lehertarazi*
- \**lehortarazi*
- \**sortarazi*
- ...

- *agerrarazi*
- *ahatarazi*
- *erakutsarazi*
- *ezkonarazi*
- *harrarazi*
- *irakurrarazi*
- *ikasarazi*
- *idatzarazi*
- *leherrarazi*
- *lehorrarazi*
- *sorrarazi*
- ...

(1. *Euskaltzaindiak 23. arauan* (1994), 3. puntuan, zera dio: 'Zenbait aditzen aldaera t-dunak, hots, *sortarazi*, *agertarazi* eta kidekoak, *sorrarazi*, *agerrarazi* eta kidekoak bezain zilegizkotzat hartzen dira'. Aldaera t-dun horiek, halere, ez ditu ezein hiztegik jaso.)

Kontuan hartu beharrekoak formari dagokionez:

Gogoan izan aditzoin batzuek berez dutela t hizkia bukaeran:

## PARTIZIPIOA

- *batu*
- *berandu*
- *berretu*
- *ezagutu*
- *gogaitu*
- *hertu*
- *laketu*
- *lotu*
- *ohartu*
- *oroitu*

## ADITZOINA

- *bat*
- *berant*
- *berret*
- *ezagut*
- *gogait*
- *hert*
- *laket*
- *lot*
- *ohart*
- *oroit*

## ADITZ ARAZLEA

- *batarazi*
- *berantarazi*
- *berretarazi*
- *ezagutarazi*
- *gogaitarazi*
- *hertarazi*
- *laketarazi*
- *lotarazi*
- *ohartarazi* (\**oharrarazi*)
- *oroitarazi*

## ERNE!

lotarazi  lokarrarazi, lo harrarazi, lo eragin

lotarazi  lotzera behartu



## Kontuan hartu beharrekoak formari dagokionez:

-tz, -ts edo -tx bukaera duten aditzoinak:

### PARTIZIPIOA <sup>1</sup>

- *ahaztu*
- *bekaiztu*
- *belztu*
- *histu*
- *hoztu*
- *hustu*
- *laztu*
- *moztu*
- *murriztu*
- *zorrotzu*
- ...
- *ekoitzi* <sup>2</sup>
- *sinetsi*

### ADITZOINA

- *ahantz*
- *bekaitz*
- *beltz*
- *hits*
- *hotz*
- *huts*
- *latz*
- *motz*
- *murriz*
- *zorrotz*
- ...
- *ekoitz*
- *sinets*

### ADITZ ARAZLEA

- *ahantzarazi*
- *bekaitzarazi*
- *beltzarazi*
- *hitsarazi*
- *hotzarazi*
- *hutsarazi*
- *latzarazi*
- *motzarazi*
- *murrizarazi*
- *zorrotzarazi*
- ...
- *ekoitzarazi* (\**ekoiztarazi*)
- *sinetsarazi* (\**sinestarazi*)

(1) Gehienak aditz eratorriak dira.

(2) Euskaltzaindiak hobetsitako formak euskara baturako.

Kontuan hartu beharrekoak formari dagokionez:

-a + arazi = ...arazi (\*aarazi)

PARTIZIPIOA

• *pintatu*

ADITZOINA

• *pinta*

ADITZ ARAZLEA

• *pintarazi* (\**pintaarazi*)

-e + arazi = ...earazi

PARTIZIPIOA

• *galdetu*

ADITZOINA

• *galde*

ADITZ ARAZLEA

• *galdearazi*

-i + arazi = ...iarazi

PARTIZIPIOA

• *garbitu*

ADITZOINA

• *garbi*

ADITZ ARAZLEA

• *garbiarazi*

-r + arazi = ...rrarazi

PARTIZIPIOA

• *laburtu*

ADITZOINA

• *labur*

ADITZ ARAZLEA

• *laburrarazi* (\**laburarazi*)



## Kontuan hartu beharrekoak erregimenari dagokionez:<sup>1</sup>

### DA aditza + arazi = DU aditza

- *etorri*
  - *etorri da*

- *etorrarazi*
  - *etorrarazi du*

- Gurekin etorri da Mikel.
- Gurasoek gurekin **etorrarazi dute** Mikel.

### DU aditza + arazi = DIO aditza

[+ osagarri zuzena]

- *saldu*
  - *saldu du*

- *salarazi*
  - *salarazi dio*

- Nire lagunak etxea saldu du.
- Beharrak eta zorrek etxea **salarazi diote** nire lagunari.

[- osagarri zuzena]

- *irakurri*
  - *irakurri du*

- *irakurrarazi*
  - *irakurrarazi dio*

- Hogei minutuz irakurri dut.
- Ikastolan hogei minutuz **irakurrarazi zidan** irakasleak.

lan egin, hitzeman gisako aditzak

- *lan egin*
  - *lan egin du*

- *lan eginarazi*
  - *lan eginarazi dio*

- Egunean 8 orduz lan egiten du.
- Egunean 14 orduz **lan eginarazten diote**.

(1) Erregimenak: *da, du, dio*.

## Kontuan hartu beharrekoak erregimenari dagokionez:

### Erregimen bereziko aditzen<sup>1</sup> aditz arazleak

- *eboluzionatu*

- Proteinek eboluzionatu **dute**.  
(\* *Proteinak eboluzionatu dira.*)  
— subjektua (*proteinek*) [ - biziduna]

- Gizakiok eboluzionatu **dugu**.  
(\* *Gizakiok eboluzionatu gara.*)  
— subjektua (*gizakiok*) [ + biziduna]

- *eboluzionarazi*

- [ - biziduna] *du*  
Naturak milioika urtez eboluzionarazi **du** proteina mota hori.

- [ + biziduna] *dio*  
Ezagutza handiagoa eta hobea izateak eboluzionarazten **digu** gizakioi.

(1) DU erregimenekoak dira, nahiz eta osagarri zuzenik (NOR kasurik) ez duten:

*bibratu, bidaiatu, boxeatu, bozkatu, brikolatu, desfilatu, dimititu, dirdiratu, eboluzionatu, erreakzionatu, errimatu, eskiatu, esprintatu, flotatu, funtzionatu, hibernatu, irakin, irau, itsastatu, migratu, obulatu, oszilatu, patinatu, pertseberatu, pibotatu, planeatu (hegazkinak), sufritu, ziatu.*





Kontuan hartu beharrekoak erregimenari dagokionez:

Erregimen bereziko aditzen aditz arazleak (adibide gehiago)

• [- biziduna]

- Musikak leku urrunetara **bidaiarazten du** irudimena.
- Bizantzioko inperioak erromatarren tradizioa bildu eta **iraunarazi zuen**.
- Sumendi itzaliaren azpian sortzen den ur geza beroak itsasoko ura **irakinarazten du**.

• [+ biziduna]

- Film liluragarri eta polit horrek beste garai batera **bidaiarazten die** ikusleei.
- Inoiz alaba berriro ikusiko duelako itxaropenak **iraunarazten dio** bizirik presoari.
- Lehorteek eragindako janari faltak hegaztiei **migrarazten die**.

## Azken bi ohar

- Aditz arazleen bidez adierazten da norbaitek zerbait egitera behartu duela norbait:

Aplikazio guztiak eta sistema orokorra zerbitzariaren bertsio eguneratu batera **migratu** ditugu.



Aplikazio guztiak eta sistema orokorra zerbitzariaren bertsio eguneratu batera **migrarazi** ditugu.

- Aditz arazleen subjuntiboa bukaerako *i* bokala kenduz sortzen da:
  - Kanpaina bat hasi da telebistan euskaldunei gaztelaniaz **eginaraz** ez diezaieten.
  - Antigorputzak hor geratzen dira betiko, baina birusa **desagerraraz** daiteke.
  - Horrek **pentsaraz** diezaguke ziklo-aldaketa datorrela.